

## Galder Gobantes tiralari zeberioztarra Euskadiko txapeldun

10. orrialdea

## Hilabete barru hasten da Korrika

Korrika martiaren 19an Urepelen hasi arteko egunak beteta jatorruz. Baita, zer esanik ez, Arratian be. Halanda, ze, kantu-poteoa hilaren 20ean Igorren, mendi urtekerea San Migel Txikira 21ean eta Igorreko Lasarte Aretoan Gosek 27an emongo dauan kontzertuagaz gozatu ahal izango dabe arratiarrak zezeilean gure eskualdean. 12. orrialdea



## Zezeilaren 28an egingo dabe AKKB Bazkide Eguna Areatzan

13. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 224

2015eko zezeilaren 17a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

# Memoria historikoari astebete eskeiniko deutsie Lemoan

Memoria historikoaren inguruan behar handia egin da Lemoan eta egindakoa herritarrai erakusteko Udalak eta Lemoatx 1937k Memoria Historikoaren Astea antolatu dabe ekitaldiz beteta.

**B**ost berbaldik, erakusketa batek eta dokumentalak emongo dabe sasoi haretako barri. Zornotzatik Lemoatxara gudariak egindako ibilbidea egiteko aukerea egongo da, eta lubakietan batailea antzetzuko dabe Frentes de Euzkadi taldekoak.

Aranzadi Zientzia Elkarteko Pako Etxeberriak be parte hartuko dau Memoria Historikoaren Astean. Lemoan topautakoaren barri emongo dau. Izan be

Aranzadi Zientzia Elkartearen gidaritzapean egin dira lubakiak berreskuratzeko beharrak eta topautako gorpuzkinak norenak ziran jakiteko ikerketak.

Sasoi honetako dokumentuak eta errekuperatuko gauza asko ikusi ahal izango dira erakusketan. Hau danau lortzeako, memoria historikoa lantzean daben beste alkarte batzuen laguntzea izan dabe Lemoakoak, Intxorta Kultur Elkartearena eta Geredia Elkartearena, barbarako. 5. orrialdea



Lemoako bonbardaketea.

### ARRATIA

## Arratia Futbol Taldeko jokalariek kromoetan

Arratia Futbol Taldeak bere kromobildumea atara dau. Urtailean egin zan beronen aurkezpena Igorren. Bertan, albuma eta kromo pakete bana oparitu jakien taldeko guztiai. 341 neska-mutil dira bertan agertzen diranak eta ilusinoan zein afizinoan ez deutsie inok irabazten.

Helburu nagusia oroigarri bihurtutea izan da, sekula be ez da egin holakorik Arratian eta betirako geldituko da. 8. eta 9. orrialdeak



### AREATZA

## Erreka ondoko pasealekua eta uriolak prebeniduteko obrak amaituta

URA-Uraren Euskal Agentziak amaitu ditu Arratia erreka lanak Areatzan. Errekearen ibilgua zabaldu dabe eta lehengo zubia bota eta barria ipini dabe uriolak prebeniduteko. Pasealekua be egin da errekearen ondoan.

Behar honeek egiteko URAK 1,7 milioe euro inbertidu ditu. 7. orrialdea

### DIMA

## Herrian umeen parte hartzea bultzatu gura dabe

Dimako gurasoak, eskolako irakasleak eta zinegotziak batzar bi egin dabez Txatxilipurdi Euskara eta Aisialdiko alkartekoakaz Herri Hezitzailea proiektua martxan ipinteko. Asmoa umeen aisialdi parte hartzailea, euskalduna eta hezitzailea bultzatzea da. Horretarako ardatz dira Administrazioa, herrigintza eta hezkuntza formala zein ez formala. 7. orrialdea

**Psikologia orokorra**

- Familia eta bikote terapia
- Psikoanekologia (esku hartze psikologikoa minbiziak jotako gaixo eta euren familiakaz)
- Sexologia

Konsulta pribadua, etxean eta on-line

Tailerra: norberaren garapenerako espazioa

- Mindfulness (konzientzia osoa / ertajazinoa)
- Barreterapia
- Gizarte trebetasunak / emozino adimena
- Eguneroko bizimoduaren estresa (lana, doluak...)

- 8-10 lagunekoko taldeak:  
Goizeko taldea (martitzena). Arrastiko taldea (barikua).

\* 4 saio: 50 euro

**Sagrario Martin Iñigo**  
Psikologian doktorea

R.P.S.: 23/15

San Juan auzoa 29, behea • Igorre • 94 657 66 10 • www.sagrariomartin.com • hola@sagrariomartin.com



## ZEURE BERBEA

### Esker onez

Ahaztu ez egiteko moduko omenaldia egin eusten zeanurizarrak abenduaren 19an. Hunkituta baino areago gaindituta sentidu nintzan omenaldi haretako zati bakotxean zeanurizarrak erakutsi eben mailaz eta agertu eusten abegitasunaz.

Gizalegezkoa iruditzen jatan omenaldia zala eta inplikau ziran guztiak zelango barru-barruko zirrara eragin eustan, esker onez, jakinarazotea: agirian agertu ez arren prestaketa lanetan jardun ebenai (honeen artean aitamen berezi-berezia egin behar Txistularien taldeari omenaldia egiteko inizatibea eurena izan zalako), oholta gainean omenaldiaren aurkezpenean edo/eta parterren batetan jardun ebenai eta omenaldira hurreratu ziran guztiak, bai zeanurizarrak eta bai arratiarrak. Eta begira nondik BEGITUREN 221. zenbakian Jon Urutxurtuk omenaldiari buruz idatzi eban kronikeak bidea erreztu deustala nire sentimentuak publikoki adierazoteko.

Aurrera jarraitu baino lehen, azpimarratu gura neuke oparitu

eusten koaderno ezin dotorea-goan jarritako argazkiak eta bertan idatzitako mezuak omenaldiko gomutapen gozoa inoz ez ahaztuten lagunduko deustela.

Omenaldiaren harira etorritz, hiru puntu aitatuko neukez:

Omenaldiak eta erabagiten diranetan, omenduaren alde onak, alde positiboak gogoratu eta auzatzen dira, txarto edo oker egingakoak bazter itxiz. Omenduak ez dauz ahaztu behar (nik be ez dodaz ahaztuten eta, ezinbestean, neure zor zatia dira), baina omentzaileen jokabide bitariko honek argi erakusten dau euren giza-maila eta bihotz handitasuna.

Omenaldia prestatzen eta burutzen jardun eben guztiak, koruaren zuzendaria eta Xabier Amuriza izan ezik, oso oker ez bango, dan-danak izan ziran zenuurizarrak eta bakotzak bere arloan, ezin egokiago jardun eban jentaurrean. Horrek erakusten dau Zeanuriko herriak, zorionez, ez dauala galdu aspalditik jatorkon zainaren indarra eta iturri desbardinetatik datozen ahalbideak alkartzeko gogoia be ez dauala gitxiesten. Ederra benetan.

Omenaldira hurreratu zan jentearen kopurua ezin hobea.

Herren geldituko zan hain maitekiro prestatutako ekintzea jentearengan oihartzunik izan ez baleu. Eta bestetik ekitaldia askotarikoa izanik, jentearentzat ikuskizun atsegingarria izan zalakoan nago. Ez dago gehiago eskatzerik, ekitaldian partaide izateaz gain, gastuak ordaindu ebazan Zeanuriko Udalarri eskerrak emotea baino.

Omenaldiaren ondoren Erretirodunen Etxean dastatu ahal izan genduzan kopauak gozo-gozoak. Izan be, Euskal Herrian ez dago ospakizunik egiterik sabela be poztu barik.

Ekintza bakotzak bere kokagune eta ingurunea daukaz, baina beste batzuetarako gose-egarriak be sortu beharko leukez. Ea horrela gertatzen dan...

Bide batez, zorionak BEGITU egiten dozuen guztioi, berrehundik gora zenbaki argitaratzea marka ederra da eta.

MARTIN ORBE

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:  
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

## ERETXIA



### IKER YURREBASO

Nekazaria

### Edurra mara-mara

**E**z dogu errez ahaztuko 2015eko zezeilaren lehenengo astea. Edurrak alarma guztiak biztu ebazan aste hartu ebaneko ha.

Zer eretxi daukazu zuk gertatu danaz? Gogoan daukazu antzeko beste edurterik? Gurako zeunke datorren urteko negua be hotza eta zuria izatea?

Batzuetan badirudi urtaroen desfileak ikara eragiten deuskula, gogaitzen gaituala, traba egiten deuskula. Batzuetan pentsetan dot non bizi garan be ahaztu dogula, edo gurago geunkeala beste lekuren baten bizi.

Alarma horia, laranja eta gorria biztu dira. Isolatuta egon gara, lantegiak eta eskolak zarratu egin dabez. Kaminoetako zirkulazioa mantsotu egin da eta kalean be kontuz ibili behar izan gara, sustorik ez hartzeako, eta hala be... Argia joan egin da, eta eguzkia barriz ikusiko ete genduan bildurrez oheratu gara. Beno, ez hainbeste beharbada.

Batzuek esaten deuskue base-ritartu garanoi antigoaleko garaiak mitifiketan doguzala, utopia malenkoniatsu baten bizi garala. Nik ordea uste dot gaur eta hemen kokatzen dogula geure burua. Edurretan inprimauta geratu diran animalia basatien aztarnak kuriosidatez behatu doguz, zeruan harrapakin bila bueltaka ibili diran arranoen hegaldiez gozatu dogu, zuriz jantzi diran zugatz erraldoien ahuldadeak txunditu gaitu. Maramara, gure txikitasunaz ohartu gara.

Gure negutegiak edur pilatuak sufridu dabez, gure soloetako ortuariak usteldu egin dira eta gure plangintzak atzeratu. Edurrak gure erlauntzak akabau ditu, gure animalien zelaia estali ditu, gure loreak zimeldu. Baina badakigu negua eta gero udabarria datorrena, eta ez daukagu presarik, etorriko da eta. Gainera, aurten lurra neguko hotzaren deskantsua hartu dauanez itxaropentsu begiratzen deusagu etorkizunari. Gaixotasun eta izurriteak garbitu ditualako fruta-arbolen azaleko zirrikietan, lurrazaleko zuloetan eta gure asmoen handikerietan. Gauzak diran modukoak diralako eskertzen doguz negu hotz edurtsuak.

Nik neuk, balantze positiboa egiten dot pasa diran asteotatik, lanaz eta ordutegiaz harago aspaldiko partez leran maldan behera umeen antzera ibili nazalako, edur bolak gozamen handiz jaurti dodazalako, inguruko mendien itxuraldaketa disfrutau dodalako, suaren ondoan otzara zahar bat konpontzeko denporea topau dodalako eta salda beroak asma-kizun handia diralako.

Puntu honetara helduta, norbaitek esango dau: "hi, poeta madarikatua, edur denporalearen erruz eskale bat hil dok Nafarroan, alua!". Eta erantzungo deusat ezetz, gizona ez dala edurtearen erruz hil, ezpabere etxebizitza eskubide gisa ez, baina pribilegiotzat daukan horrerik galdegin. Basoetako egurrak gordetzen dauan beroa bahitu gura dauan horrerik galdegin. Adi, edurrean kristalizau dan ura pribatizauko dabe laster eta! Argi dago, dana da erlatiboa, eta hau eretxi bat baino ez da.

Eta zuk? Maite dozu edurraren zuria oinpean? Zer eretxi daukazu zuk gertatu danaz?

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Ustruku



Euria danean, atmosferako ur-tantakaden pantaila batek eguzkiaren edo itargiaren argiaren kontaktuagaz sortuten dauan fenomeno atmosferikoa da ustrukua (ustrukue agoskatuta, lgorren), hau da, zeruan ikusten dogun kolorezko arku edo uztaiak. Batuaz, ostadar edo ortzadar da. Arratian badagoz beste berba honeek be ustruku esateko: ostriku, sustruku, istruku (Lemoan), ostruku (Zeanurin), irestargi eta zeruko zubi (Zeberion), uztarku... "Sustrukuari haginak erakutsi ezker, usteldu egiten ei dirala" dinosku herritarren memorian gordetako sineskera batek.

**BATZ** 50 urte

BATZ, S. KOOP.  
Torrea auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...  
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enkargatzen  
Batzen gaitu

MONDRAGON

## LUMATUTEN



MAITE ARTABE

## Etixerantzako burutazinoak

**G**asteiz: Lehenengo akordeetan ezetu dot kantea, Ruper Ordorikaren "Zaindu maite duzun hori" eta buruari ekin deustat.

Miñao: Pentsau dot askotan gakoa zaindutea bera baino zelan zaindu izaten dala. Zaintzailea eta zaindua euki behar kontuan horretarako eta bakotxa gara mundu bat eta horreen arteko konbinazioak infinitu.

Luko: Danok behar dogu batzuetan kontenplau gagiezala, eta ez Osakidetza zaintzen gaituan moduan zainduak izatea: eizu hau, eizu bestea... ez egin hau, ez egin bestea...

Goiain: Bai ama, ondo ikasi neban zure irakaspena: koplak barik norbere baloreari heriotzaraino eustearena. Argi geratu jata, eta eutsiko deutset; baina koplak barik horregaz daukadaz arazoak. Batzuetan koplak batzuk be...

Legutio: Niri neuri ez jata arrotz egiten maina batzuen beharra eta ondo hartzean dot ingurukoak be behar izatea. Sekula ez dot euki, oster, Osakidetza senik: gorputzeko

gaixotasunak, omega 3a eta gama GPTa zientzia-fikzino.

Eta ikusten dot bat baino gehiago beti gorputzaren eragin txikiari be begira dagoana, eta nik ezin ulertu.

Ollereta: Modu berean ulertu ezin egiten jataz euren burua zaintzen ez dabenak; horixe beharko leuke lehenengo betebeharra, zaindu maite dozun hori.

Ubide: Rolen kontuak zerikusia ei dauka horretan be: andrak beti besteak zaintzen egon beharra euren buruagaz ahaztuta eta gizonak euren burua zaindu beharrean ariskutan jartzen ibiltea. Honetan be estereotipoak apurtzen badoguz danok irabaziko dogulakoan nago.

Barazar: Ingurukoan eta euren buruaren kalterako zaintzaile sakrifikauek zein astokilo burubakoak Gurago dot horreetatik urrin, Amaia Lasak poema haretan inoana gogoan hartu: "Gure erreinua/mundu honetakoa da".

Zeanuri: Beste Amaia batek, Amaia Orozkok *cuidadania*-z dinoana be burutazino: "Kuidadaniak hainbat eskubide darkar beragaz: zaintzeko eskubidea, obligazioz ez zaintzeko eta zaindua izatekoarena androntzako subordinazioa sortu barik. Dekrezi-mentuak eta kuidadaniak eskatzen dabe gure gizartea modu kolektiboan berrantolatzeko eskubidea eta posibilitadea, geure bizitza modu iraunkorrean kolektiboki sortu daigun".

"Nik ere nahi nituzke/halako segurtasunak eduki".

Areatza: Zaila da bizitza persona-lean asmatzen kontu honetan baina bitartean "kantua leunak/nahi nituzke jani", maina batzuk hartu eta egitea eta apur bat alkar kontenpletea beti dator ondo.

## ZERTZEAN



IRATI BERNAOLA

## Gaia jarrita: "Zelan ikusten dozu mundua?"

1

Galdera horri erantzuteko heldu jata hitzordua denbora tarte luzea hartu dot begiratzu ingurua ta kritikoa izan behar danez enaz izango malgua beraz bertsotan botakot zelan ikusten doten mundua.

2

Denbora luzez aipatu behar gure Ekialde Hurbila palestinarrek jasandakoa ez da izan gerra isila errepresio ta bortxaketak gehitu sarraskiak mila herri zapaldu danen gatazka behingoz konpondu dadila.

3

Ukraniak behintzat arnasa hartzeko adostu dau su-etena herri Kurduaren erresistentzia da iraultzaroko lema hegoalderantz hartuko dogu pobreziarantzko trena ez dago hitzik deskribatzeko ze injustoa dan dena.

4

Euro-eredu honen gainbehera ez da guretzat berria kasu Grezia astindu dauen krisi gogor ta larria eraldaketa sozialerako altxatu egin da herria Tsiprasek lortu dau boterea jarriz lehenengo harria.

5

Ta Espainiak sistema euren mesedetara moldatu korruptzioa gorantz doala Barcenan libre geratu nahiz eta krisi honentzat plana murrizketekin garatu hitz asko esaten dauriez baina hemen ez da ezer aldatu.

6

Euskal herrien dekogun lana bakoitzak zein dan badaki inposaketa guztien gainetik danok garelako zazpi presoak kalean behar doguz eta etorkizuna erabaki herri euskaldun, askea eta burujabea eraiki.

## BEGI TXINDORRA

**S**anta Ageda egunean, zezeilaren 5ean, edurragaitik mezea eta jaia bertan behera itxi behar izan ziran Ipiñaburuko kofradian kokatzen dan santa siziliarraren omenezko ermitan. Baina domekan, zezeilaren 8an, bai mezea eta bai jaia be ospatu ziran.

Aspalditik gertatzen dan legez, mezearen hasieran Santa Agedaren koplak abesteko hara hurreratu zan Ernesto Etxebarriak zuzentzen dauan taldea. Ernesto da orain dala urte asko Juantxo Larrazabalegaz ohitura hori hasi eban kuadrilatik jarraitzen dauan bakarra. Gainera, aurtan lehenengo aldiz hiru andrazkok parte hartu dabe taldean.

**Jon Urutxurtu**



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscl.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
hagin klinika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Odotzangoa  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalejatu Zerbaita 100  
R.P.S. 21/06

**FISIOTERAPIA** **Sasobide**  
Balneario Areatza  
Tania Fernandez Santiago  
COL. 1718  
www.gruposasobide.com Tel: 94 657 54 50

## IGORRE

# Immigrazinoaren gaineko berbaldia egingo dau Xabier Aierdik



Xabier Aierdi soziologo zeberioztarra.

Arratiako Eleizak antolatuta Xabier Aierdi soziologiaren berbaldia izango da Igorren, zezeilaren 27an, arrastiko zazpiretan, Igorreko Kultur Etxean.

### Erredakzioa

Immigranteen aurkako jarkerak hartuko dau berbagai Zeberioko soziologoak. Izan be, antolatzaileen arabera, krisi ekonomikoak eta hauteskunde kanpaina has-teak, immigranteen aurkako jarkerak biztu edo indartu egin dauz eta orain arte isilik izandako eretxi asko pil-pilean dabiz Arratian.

Berbaldiak etorkinakanako aur-rerretxi eta zurrumurruai aurre egin gura deutse. "Arratiara eta Euskal Herrira atzeriko immigra-zino fluxu barriak heldu izanak suspertu egin dauz aniztasuna-ren inguruko eztabaidak. Aniztasuna interesgarria da teoriar, bai-na batez be praktikan. Estadu bat, gitxiengo nazional bat eta gizarte immigranteak eremu soziopolitiko baten koinzidituteak edozein urteera gatx egiten dau, baina hor datza egoera nahasi honen erro-neak" dinoe antolatzaileak.

### EAEko etorkinak batez be an-drazkoak

Aierdik jakitera emon ebanaren arabera, lehenengo etorkinak Kolonbiatik, Perutik eta Ekuadoretik etorri ziran EAEra eta % 70a baino gehiago andrazkoak ziran, zaintza lanak egitera etorritakoak. "Euskaldunon eredu immigratorioa femeninoa da erabat". Gizarteak daukan joera aztertuta "urte batzuk barru persona nagusiz betetako gizarte baten biziko gara" eta piramide

demografikoak "buruhandi forma hartuko dau". Nagusiak zaintzeko "berrantolaketa soziologikoa" behar izango da, zaintza lanak beste modu baten antolatuteko.

### Praktika txarrik ez

Aierdiren arabera, datuak dinoe hamarretik lau herritar etorkinen alde agertzen dala, beste lauk an-bibalente jokutzen dabela eta bi kontran dagozala. "Zurrumurrueen aurka jarduteko an-bibalenteai portaera ona izan dagien bultzatu behar jakie eta aurka dagozanai errespetuz jokatu dagiela exijidu".

Aierdiren esanetan bertako batzuk etorkinen aurkako idea txarrik izan arren, ez dabe praktika txarrik: "gauza bat da zurrumurrua sinestea eta jokiera bat izatea baina egunerokoan jentek ez dau portaera txarrik". Zurrumurrui aurre egiteko bar-riz umorea bandera moduan hartzeako konbitea egiten dau soziologoak.

### Xabier Aierdi

Aierdi 1957.ean jaio zan Zeberion. Soziologia eta Zientzia Politikoe-tan eta Kazetaritzan lizentziaduna da. 1994a geroztik Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle, Departamenduko zuzendari eta 2010. urtera arte, "Ikuspegi" immigra-zinoari buruzko Euskal Behatokiko Zuzendarikidea. Gaur egun eta Begiruneko (EHUko Immigra-zinoaren Ikerketarako Laborategia) zuzendaria da.

## LEMOA

# Memoria Historikoaren Astea antolatu dabe lehenengoz

Urrietan Lemoatxako lubakien inguruan Hilario Blanco Reguero gudariaren hazurrak topau ebezan eta bizi dauan arrebeari emongo deusiez horretarako antolatutako ekitaldi baten. Saioa Elejabarrieta Lemoako alkatea, Pako Etxeberria Aranzadi Zientzia Elkarteko presidentea eta auzitegi medikua eta Eusko Jaurlaritzako ordezkari bat egongo dira hilaren 20ko ekitaldi honetan Memoria Historikoaren Asteari hasikerea emoten.

### Erredakzioa

Familiari hazurrak bueltatzeko momentu hunkigari eta garrantzitsua-gaz hasiko da eta 1936ko gerran eta gerraostean Lemoan bizi izandakoa argitzeko ekitaldi asko egongo dira: erakusketa bat, bost berbaldi, dokumentalak eta Lemoatxarako frankistak egindako ibilbidea egingo dauan mendi martxa bat. Holan, hilaren 22an, interesauta dagozan heritarrak lubakiak ikustera joango dira Zornotzako bidetik "Lemoan geratuko gara, joango gara Zornotzaraino oinez eta igongo gara Lemoatxara baina Zornotzako bidetik. Hori da frankistak hartu eben bidea eta" azaldu deutso BEGITURI Mikel Garciak. Eta han gertatutakoa antzerki baten bitartez azalduko dabe Frenes de Euzkadi alkartekoak.

Astelehenean, martitzenean eta barikuan berbaldiak egongo dira, eta eguenean, dokumental emonaldia udaletxeko Pleno Aretoan.

Memoria Historikoaren Astea Lemoatx 1937 eta Udalak antolatu dabe, laguntzaile eta kolaboratzaile

askoren laguntzeagaz, Aranzadi, Intxorta Kultur Elkartea, Geredi-ga Elkartea, Eusko Jaurlaritz eta Frenes de Euzkadi, beste batzuen artean.

### Proiektua hazten

Atzenengo urteetan memoria historikoak pisu handia hartu dau Lemoan eta orain arteko proiektuak txiki geratu dira. "Uste dogu heldu dala momentua proiektua handitu eta zabaltzeko" dino Mikel Garcia Udaleko Gazte Teknikariak. Hori dala eta, urtean zehar ekintzak egiteaz aparte, kulturari edo kirolari emoten jakien moduan, memoria historikoak be aste bat behar ebala pentsau ebela dino Garciak.

Orain arte egindako ikerketa eta aurkikuntzak ikerketea sakontzeko premia ekarri dabe eta epe luzerako proiektua egiten hasi dira. "Lemoatx 1937ko kideakaz eta beste alkarte batzukaz landuko da. Talde askogaz kontaktau eta honeekaz berba egingo dogu ikusteko ze bide jarraitu ahal dogun honetarako" dino teknikariak.

Proiektua bagilerako edo gara-garilerako amaitutea espero dabe. Amaitutakoan udaletik pasau beharko da eta batzordeak onartuten badabe, jentaurrean aurkeztuko da.

### Egitaraua

#### Zezeilak 22, domekea

10:30ean, gudariak egindako ibilbidea (urtekerea Atxeta plazan) eta antzerki formako lubakia San Antolinen, Frenes de Euzkadi alkartearen eskutik.

#### Zezeilak 23, astelehena

19:00etan, Josu Txueka eta Juan Ramon Garaien berbaldia "Octubre de 1934 en Euskal Herria" udaletxeko Pleno Aretoan.

20:00etan, Aritz Ipiñaren berbaldia "Lemoa ya es España, la represión franquista entre el personal municipal de Lemoa" Pleno Aretoan.

#### Zezeilak 24, martitena

19:00etan Pako Etxeberriaren berbaldia "Exhumando fosas, recuperando dignidades" Pleno Aretoan.

#### Zezeilak 26, eguena

19:00etan, dokumentalak Pleno Aretoan.

#### Zezeilak 27, barikua

19:00etan Asuncion Badiolaren berbaldia "Campos de concentración y cárceles en Bizkaia" Pleno Aretoan.

20:00etan, Joseba Egigurenen berbaldia "Prisioneros de Franco en Orduña" Pleno Aretoan.

## Akats zuzenketea

Igorreko Aratuste jaialdia irakasleak antolatu eben eta Guraso Alkartek Zumbaren osteko txokolata ipini eban.

Diman be, Aratuste jaia zapatuan izan zan, hilak 14 eta ez 13an (BEGITUREN 223. zenbakian holan agertu zan). BEGITUREN webgunean eta Facebook-ean zuzendu genduan data. Parkatu eragozpenak.

Semana de la memoria histórica de LEMOA ko memoria historikoaren astea  
otsailaren 20tik 27ra (del 20 al 27 de febrero)

**OTSAILAK 22 (PLENO ARETOAN)**  
10:30 Gudariak egindako ibilbidea (irteera Atxeta plazan) + Antzerki formako lubakia San Antolinen

**OTSAILAK 23 (PLENO ARETOAN)**  
19:00 "Octubre de 1934 en Euskal Herria" (Josu Txueka eta Juan Ramón Garai)  
20:00 "Lemoa ya es España, la represión Franquista entre el personal municipal de Lemoa" (Aritz Ipiña)

**OTSAILAK 24 (PLENO ARETOAN)**  
19:00 "Exhumando fosas, recuperando dignidades" (Pako Etxeberria)

**OTSAILAK 26 (PLENO ARETOAN)**  
19:00 Dokumentalak

**OTSAILAK 27 (PLENO ARETOAN)**  
19:00 "Campos de concentración y cárceles de Bizkaia" (Asunción Badiola)  
20:00 "Prisioneros de Franco en Orduña" (Joseba Egiguren)

## ZEBERIO

**María Rivero: "Kantuak hip-hop kutsua dauka, baina estilo nahasketa bat da"**

Zeberion, ludotekearen ekimenaz, kantu bat sortu, kantau eta bideoklipa grabau dabe Arantzazuko Balea estudioetan. Grabaketa egunean, beste batzuen artean, 3 eta 8 urte bitarteko hamaika umek eta guraso batzuk batu ziran estudioan, baina herri osoak eukan parte hartzeako konbitea. Kantuaren zati bat Zeberioko O'zeber raperoak eta Kepa Perez Urrazak idatzi dabe, beste zati batzuk ludotekakoak eurak.

Bideokliparen montajea amaitu eta aurkezpena martian egitea espero dau María Rivero Zeberioko ludotekako beharginak.

## Erredakzinoa

**Ludotekako umek grabau dabe kantua?**

Hamaika ume, hiru eta zortzi urte bitarteko umek batez be egon ziran estudioan grabaketa egunean. Edade horretakoak ez daukie ondino lotsaren aurrerexi hori, eta batez be edade horretakoak batu ziran. Gurasoak parte izatea be gura genduan. Orokorrean ludotekearen parte izatea gura izaten dogu, baina batez be ekintza honetan euren partaidetza sano inportantea zan guretzat. Gurasoak be grabau eben eurentzat prestatuta egoan zatitxo bat. Umeentzat eurentzat be prestatu genduan beste zati bat, eta beste zatitxo bat Zeberioko rapero bateri itxi geuntsan.

Konbitea, herri osoarentzat izan zan.

**Ze titulu dauka kantuak eta zertaz da?**

Ondino ez deusagu titulurik ipini. Letrearen zatirik handiena, raperoak kantetan dauana, Kepa Perez Urrazak idatzi eban. Umeentzako edo gurasoentzako zatiak ludotekan prestatu doguz eta letrea, alaia eta disfrutetako da batez be. Umeentzako zatian, berbakaz olgetan gara eta behin eta barriz, Zeberio errepikatzen dogu, ze guk zeozer bertakoa izatea gura genduan. Zatik garrantzitsuena edo zeozer esateko daukana Kepa Perez Urrazak idatzi-



María Rivero.

takoa da.

**Doinua rap-a da orduan?**

Ez. Zati bat egin genduan apur bat elektronikoagoa edo, eta gero Asier Ercillak, estudioko teknikari eta musikari apartak, arregloak egin eutsazan. Nik uste dot estilo askotako kantua dala. Hip-hop kutsua badauka, baina orokorrean estilo nahasketea da.

**Kantu hau grabetako prozesua luzea izan da?**

Igaz hasi ginan, baina hasieran ebatzi genduan data, ez zala egokia konturatu ginan laster. Zeberio herri txikia da, baina jarduera asko ditu. Orduan ebatzi genduan, momentu egokiago baterako ixtea eta oraintsu hartu dogu barriro eronka hori.

Hainbat ekimen egin doguz prozesu barruan. Lehenengotik kontzertu didaktikoa egin genduan txikien zatia prestatzeko. Eta hip-hop zatia prestatzeko hip-hop ikastaroa prestatu genduan. Gero ensaio orokorrak etorri ziran eta txikiak ludotekan be egin genduzan ensaiok. Gehien kostau dana izan da jentea erakartea eta animetea. Gauza desbardina eta ezezaguna da eta batzuek lotsea-edo daukie.

Luzea izan arren, gauza askotarako balio izan dau kantu hau sortzeako prozesuak.

**Zelan zabalduko da bideoklipa?**

Lehenengotik aurkezpena egingo dogu, ziur asko plazan bertan, kalean, jentek ikusi dagian. Gero

ikusiko dogu, sare sozialetan edo... Baina batez be bane konsumorako kantua da, ez da zabaltzeko kantu bat, herirako da.

**Hau ludotekan sortutako ekimena izan da. Zenbat umek erabilten dabe ludotekea?**

Asteke egunaren arabera asko aldatuten da. Esaterako, barikuetan ume asko hurreraten dira. Bataz besteko bat emotearen, barikuan izan daiteke 25 ume alkartzen dirala eta aste barruan egun baten izan daitezke 20 ume eta beste baten 10.

Espazioa be ez da oso handia, orduan batera askoz jota 20 ume egon behar dira ondo jolasteko eta patxadaz ibilteko. Batzuk sartu egiten dira, beste batzuk urten; batzuk ordubete egoten dira, beste batzuk hiru ordu eta beste batzuk hamar minutu.

**Orain zeintzuk dira zuen erronkak?**

Zeberioko ludotekea beste edozein herritako ludotekea langoa da. Ni Zelaiak Zerbitzuak enpresako behargina naz. Umeak beste era baten dinamizetea eta mobidutea eta ekimen batzuetan murgiltzea izan da hasikeratik ludotekearen erronka.


Umeen arteko alkarlana eta jolas libre bala baloretan dogu batez be. Orain "Sortzaile barriak" izeneko tailer bategaz hasi gara. Astero ordubetez, izena emon daben umekaz disziplina desbardinak lantzean doguz sormena bultzatzeko.

Ekimenok herria ondo ezetuta bideratzen doguz, bai herria bera bai ludotekea aberasteko, eta umek disfrutau dagien batez be.

**Etorkizunari begira beste proiekturen bat?**

Garrantzitsuena umek gustura egotea da, programazio polit bat egitearen ginetik, eurak gura dabena egin ahal izatea. Eurak gura badabe sortzaile barrien tailerra jarraituteak, jarraituko dau. Ikusten badogu ez dabela gozatuten, beste bategaz saiatuko gara. Nik uste kasu egin behar deutsegula umeai, batez be jakinda ludotekea jolas liberako espazio bat dala, ez hain bideratua. Ez dagoz eskolan. Ludotekea espazio libre bat izatea gura dogu, umek euren artean jolasteko, jolas libre jorrazteko, irudimena lantzeako eta abar.

## IGORRE

**Autodefensa feminista tailerra**

Hilaren 28an izango da tailerra.

## Erredakzinoa

Igorreko Udalak autodefensa feminista tailerra antolatu dau hilaren 28rako. Tailerraren helburuak, eguneroko egoera sexistak identifiketea, erantzun desbardinak konpartidutea eta biziteko jarkera bat bultzatzea dira beste batzuen artean. Pili Alvarezen eskutik izango da eta edozein edadetako andrak hartu leikie parte bertan.

Autodefensa feministak andrai jarkerea aldatzen lagunduten deutse eguneroko eraso sexistai aurre egiteko. "Askok pentsetan dabe autodefensa feminista tailer baten ikasten dala zelan erantzun kalean eta gauaz eraso bat sufridu ezker, baina harago doa. Egunean-egunean gertatzen diran eraso sexistak identifiketea dogu erronka, alkarrengandik ikasi eta bizitzako jarkera bat geurea egiteko. Hortxe dago gakoa. Androk defendiduteko ahalmena daukagula azpimarratu gura dogu" dino Pili Alvarezek.

Tailerra goiz eta arrastiz izango da. 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era. Izena Igorreko Kultur Etxean emon behar da.

Gratiasio Herri Ikastetxeak

# Gure

ikastetxeak

Euskalduna

kalidarezkoa

herrikoa

<b>J.B. Eguzkiza Meabe HI</b> Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	<b>Ikastola Arratia HI</b> Tel.: 94 673 90 65 Artea
<b>Ugarana HI</b> Tel.: 94 631 55 32 Dima	<b>Arratia BHI</b> Tel.: 94 673 62 37 Igorre
<b>Zubialde HI</b> Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	<b>Areatzako Herri Eskola</b> Tel.: 94 673 90 93 Areatza
<b>Zeanuri HI</b> Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	<b>I. Zubizarreta HI</b> Tel.: 94 673 60 22 Igorre

## DIMA

# Herri Hezitzailea proiektua abiatu dabe



Herri Hezitzailea proiektuko batzarra.

### Erredakzinoa

Orain arte, batzar bi egin dabez Txabxilipurdi Euskara eta Aisialdiko alkartekoak Dimako zinegotzi, eskola arduradun eta gurasoakaz. Asmoa umeen aisialdi parte hartzailea, eskalduna eta hezitzailea bultzatzea da. Horretarako, Herri Hezitzailea proiektua ipiniko dabe martxan.

Proiektua abiatzeko hiru ardatzen

beharra dago. Administrazioa, herri-erregintza eta hezkuntza (formala eta ez formala) dira hiru ardatzok. Lehenengo batzarrean egitasmoa aurkeztu zan eta hemendik aurrera, Txabxilipurdiko Mireia Bas eta Maialen Gorosabelek ume eta gaztetxoakaz dinamikak egingo dabez aisialdiaren inguruan eta herriaren azterketara egiteko. Dinamika honeen ostean, ondorioak atera eta ekintza plan

bat zehaztuko dabe eragile guztien artean, ume eta gazteen partaide-zeagaz, herri-erregintzan ume eta gaztetxoak benetako parte hartzea izan dagien. Filosofia honegaz buztartzen dabe daborduko teoria eta praktika Dimako eskolan, "umeak subjektu aktibo bilakatzea eta eurak izatea eragile, eskolearen lerro bat da" azaldu eban Zefe Ziarrusta Dima Ugarana eskolako irakasleak.

### Umeen mundua ikusteko modu propioa

Umeen parte hartzea eta umeen kultura eta jolasaren ezinbestekotasuna dira proiektu honen oinarrietako batzuk. Umeen parte hartzea, ekintza puntual bat izateri itxi, eta gizartea eragiteko eta euren identitatea definitzeko tresna moduan ulertuten dabe proiektu honetakoak. "Umeen kulturaz berba egiteak ekarten dau aitortzea umeak euren modu etiko, estetiko eta poetiko propioa daukiela mundua ikusteko; eta euren bizitzari eta existentziari zentzua emoten deusien hipotesiak, teoriak eta metaforak eragiteko gai dirala".

## ARRATIA

# Edurretako argazkiak webgunean

### Erredakzinoa

Edurrak paisaje polit asko itxi ditu Arratian eta gure irakurleak bialdu deuskuez hainbat argazki. Argazkion bildumea begitu.org-en ikusi daiteke.

Edur asko bota eban zezeilaren lehenengo astean gure eskualde menditsuan, eta makinak etenba-

rik pasetan eta gatza botaten ibili ziran kamino eta bideetan.

Auzune altuetan, dana dala, eta edurra botaten dauanean gertatzen dan moduan, egon zan pare bat egunetan etxean geratu behar izan zana. Ez zan ezer larririk gertatu eta edurraren alderik ederrenaren lekuko dira argazkiok.



Aldoia, Dima.

## AREATZA

# Uriolen kontrako obrak amaitu ditu URAk

Zezeilaren 13an, Josu Basozabal Areatzako alkateak, Ana Oregi Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailburuak eta Iñigo Ansola URAko zuzendariak Arratia errekearen gaineko zubi barria bisitatu eban URAk Areatzan egin dituan lanen amaiera ospatuteko.

### Erredakzinoa

Lan honek lehengo zubia bota eta barria egitea, presa txikia botatea, ibilgua zabalduzea, ezkerreko ertzan saneamentua ipintea, mendi hegalak eustea eta ertzen landareztatzea izan dira.

Ekitaldian Basozabalek gogora ekarri eban 15 bat urte behar izan dirala proiektu hau gauzatzeko. "Danetik gertatu da: aurrekonturik eza, arazo teknikoak... danetik. Baina atzanean, ekinez, egitea lortu da. Jente askoren alkarlana behar izan da eta eurentzat gure

herriaren esker ona" esan eban.

Areatzako atzenengo 50 urteko lanik garrantzitsuena izan da hau alkatearen ustez eta lanok "billaroztarrai beste modu baten pentsau arazoko deusku. Ez gara bizi izango errekeari lepoa emoten, orain arte egin dogun moduan" esan eban. Alkateak azpimarratu be egin eban aisialdirako gune bat sortu dala erreka ondoan.

Ana Oregi Sailburuak be pentsetan eban lan honek gauza on asko ekarri deusela billaroztarrai, "uriolak sahiestea, noski.

Orain dala 15 egun izan genduzan momentu larriak, eta nik uste dot hemen Areatzan beste modu baten bizi izan zirala obra honeri esker" esan eban. Gainera, natura eta herriaren arteko "alkarriketatea" berreskuratu dala eta horren garrantzia azpimarratu eban "berreskuratu dogu esparru bat jentea paseatzeko, biziteko-eta, atzanean, alkarbizitza hori natura eta herriagaz egiteko". Oregiren ustez, arkeologia eta animalia espezie batzuk babesteko sensibilitate berezia izan da obra honetan.



Zubizarratik Areatza.

### 1,7 miloe euroko inbersinoa

URA-Uraren Euskal Agentziak 1,7 miloe euro inbertidu ditu Arratia ibaia egokitzeko beharretan, Areatzan hustubidearen ahalmena handitzeko eta ibilguko eta ertzetako habitata leheneratzeko. Holan, proiektuaren arabera, 194 zugatz, eta 150 zugaxka landatu

dira erreka ondoan.

Ibaia bideratu dabe 340m.tan eta diseinutako emaria 254m<sup>3</sup>/segundukoa. Ibilguaren batz besteko zabalera 18 m.koa eta ur sakonera maximoa 4,60m.

Zubiari jagokonean, zubiaren luzera 17,78m.koa da eta zabalera 7m.koa.

946.319.008  
658.195.091  
Udagoien eta neguko kolezino barriak ikusi gura badozuz, SARTU FACEBOOKera  
www.facebook.com/galanta.lenceria  
Agirre Lehendakaria 23  
48.140 Igoerre  
galanta@hotmail.es

**GALANTA**  
zure barruko arropa  
**M. JOSE**  
barrutik janzen zaitu

umeen moda  
**sein**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnoa. 94 631 92 96 • seinmodu@hotmail.com

## ARRATIA FUTBOL TALDEA

# Beilegi urdinen familia liburua

"Jokalari bat, edozein, talde bateko osagai erabilgarria izan daiteke, baina jokalaria batek bakarrik ezin dau talde bat egin".  
Hauxe da Arratia taldeak kategoria guztientzako oinarritzat hartzean dauan lemea.

**Irati Urien**

Arratia Futbol Taldeak bere kromo-albuma atera dau. Urtailaren 17an egin zan beronen aurkezpena. Bertan, albuma eta kromo pakete bana oparitu jakien taldeko guztiak. Ez dira Lionel Messi, Iraia Iturregi, Gaizka Toquero edo Eli Ibarra; Beñat Duandikoetxea, Elene Astondo, Agate Landajo, Markel Petralanda eta beste 337 neska-mutil dira eta ilusinoan zein afizinoan ez deusie inok irabazten.

Albumaren helburu nagusia oroigarri bihurtzea izan da. Atzen baten sekula be ez da egin holakorik Arratian eta betirako geldituko da. Xabi Garcia futbol baseko koordinatzaile eta jubenilen entrenadoreak azaldu dauanez, "boom" bat sortu gura izan da eta horrek mobimentua ekarri dau, txispa apur bat

emon deutso Arratiari. Jokalariak zein entrenatzaileak euren artean ezetutea be bazan asmoa, danak parte hartutea.

450 kromo. Badago nondik ibili album osoa beteteko. Neska zein mutil, bost urtetik nagusietara arte, 341 dira jokalaria Arratia Futbol Taldean. Bilduman taldeko argazkiak zein entrenatzaileenak be euren kromoa daukie. Banan-banan atereak beharra denporeagaz egitea suposatu dau. Urri bigarrenean atera ebezan argazkiok, egun haretan dan-danak agertu ziran taldeko erropea janzea aitzu barik. Nostalgia be badauka bere lekutxo bilduman; izan be, hainbat dira bertan ikusi leikezan antxinako erretratuak.

"Beti lehenengo dibisinokoak izaten dira albumetakoak eta orain, norbera kromoan ikusteak kolektzioa egiteko gehiago motibetan

gaitu danok", dino Garciak. Badago albuma amaitu dauanik, beste asko ezinean dabiz errepeakaz gora eta behera. Asier Etxezarraga klubeko lehendakariak adierazo dauanez, jentea sano pozik dabil bilduma osotu guran. Entrenamentua, eskolako errekreoa, asteburua... edozein momentu da ona. Etxezarragak dinoanez, trukerako momentu horreek sortuten daben giro ona itzela da.

Ezagun da albuma oihartzuna eukiten dabilela eskualdean. Emotzak ikusita balorazino sano ona egiten dau lehendakariak. Bestalde, helburu ekonomiko bako idea dala jakinarazo gura dau Asier Etxezarragak, Arratia Futbol Taldeak ez daua dirurik irabazten. Cromogal kirol argitalpenen enpresa arduratu da antolakuntzeagaz eta berau geldituten da diruagaz.



Argazkia: Gorka Sanz.



Argazkia: Gorka Sanz.



Argazkia: Gorka Sanz.

**Okindegia**  
+ Ke... PAN  
Etxean bertan egindako pastelak

**IGORRE**  
Lehendakari  
Agirre 11  
94 656 65 52  
Sabino Arana 35  
94 657 3898  
**AREATZA**  
Goiko kalea 8  
94 608 90 47

ARA OTZ  
Lanegintza & Jabetza

**RUGBY**  
TABERNA

•Egin zaitetz bazkide!  
•09:30etik zabalik  
•Asteburretan pintxo bereziak

arratiko.zekorrak@gmail.com  
<http://santxisme.blogspot.com/>

**arratiako instalazioak s.l.**  
Berokuntza - Iturgintza - Gasa  
Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea  
Pab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia

**24h**  
EGUNEKO OGIA  
vending pan  
**IGORRE**  
Lehendakari Agirre

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

**OPEL**  
Ibaigane, s. Coop. Ltda.  
Estazioa, 15  
48330 LEMOA (Bizkaia)  
Telf. 631 33 30 - 631 31 31  
Fax 631 36 15





"Gauza polita dala irudituten jata. Umeak apreziau egiten dabe kromoetan eurak agertutea eta ilusinoz egiten dabiz albuma. Gureari asko-asko ez, baina falta jakoz ondino batzuk amaituteko"

**Jorge Orue (gurasoa)**

"Erabateko arrakastea euki dau. Pilo bat saldu dogu. Umeai beti gustau izan jakiez kromo kontuak eta oraingoan protagonistak eurak izakeran egundoko afizinoagaz dabiz"

**Pili Markina (dendaria)**

"Kirola egitetik aparte lagun asko egiten dabez. Bistaz hainbat ezetuten dira baina kromoen kontu honegaz izenak be jakin leikiez orain, aurrera begira ona izan leiteke hartu-emonetarako"

**Elena Linaza (gurasoa)**

"Arratia Taldean bakotxa bere airera dabil beti, esan lei talde bakotxa mundu bat dala eta ez daukagula zerikusirik bata besteagaz; orduan gustau egin jata talde osoa batu eta album hau sortutea"

**Naia Totorika (jokalaria)**

"Lobai ilusinoa egiten deutse baina niri gehiago. Semeak eta erranak neurrian erosteko esaten deuste baina asteen sobre bi erosten deustedaz behintzat"

**Jose Felix Garcia (aitita)**

"Kromoakaz gura doguna da, batez be, ume eta gazteen artean Arratia Futbol Taldearen "markea" zabaldutea, erreferente bat izatea. Honegaz ez dogu dirurik irabazten"

**Pedro Jose Ormazabal (presidendeordea)**

## Arratia Futbol Taldea

Laburra baina bizia izan da Arratiako Futbol Taldearen bizitza Asier Etxezarragaren berbetan. Holantxe adierazoten dau klubeko lehendakariak albumaren sarrerako post-datan.

Arratiako Futbol Taldea 1958an sortu zan ofizialki, SD Amorebietaren aurkako partidu baten. Izen hori barik baina lehenago be jokatu ten eben futbolean Jose Mari Ormazabal, Sabino Arana (Igorreko alkate ohia) eta Rufo Asuak (Dimako antxinako albaitaria) sortutako taldean. Hasikera haretan klubaren egoitzea Pedro Etxebarriaren Txato tabernea zan.

Espazio desbardinatetik pasau da Arratiako Futbol Taldea. Lehenengotan Zigurdiko zelaian ibiltzen ziran, Ugarte Bekoan gero eta Ormazabal lantegi ondoan dagoan landan gerotxoago. 1998tik bai futbol zelaia eta bai klubaren egoitzea Urbietan kokatuten dira.

Andrazkoen taldeak Arratiako klubaren zati garrantzitsua suposatuten dau. 70. hamarkadaren hasikera "Soberano" izeneko neska taldea egoan, Bizkaiko Txapelketea irabazi eban honek. Gaur egun, kategoria desbardinetako bost talde dagoz andrazkoetan gurean; tartean, Euskal Ligan jokatu ten dauan nagusien taldea. 2014-2015 denporaldian kategoria guztietan neska taldeak egotea lortu da lehenengoz, Bizkaiko klub askok ezin dabe bardina esan.

Gaur egun lehen mailako entrenatzaile dan Jose Luis Mendilibarren eskutik lortu dau arrakastarik handiena Arratia taldeak, hirugarren mailan bi urtez jardutea alegia. Momentu honetan hiru dira klubak hartuten dituan esparruak; Arratiako Futbol Eskola, Futbol eskolarra eta Futbol federatua. Futbol-eskola be badaukie bost eta zazpi urte bitarteko neska-mutikoak kirol mundura bideratuteko asmoagaz. Gazteak hezteko gogoagaz hainbat dira urtean zehar antolatuten dabezan jarduerak: Txapelketen antolakuntzea, eguneroko entrenamentuak, San Antonio eta Andra Mari Txapelketen antolakuntzea, Arratiatik kanpo hainbat kirol ekitalditan parte hartzea, udako campusa...



## SOKATIREA

Galder Gobantes tiralaria  
Euskadiko txapeldun

Galder Gobantes Ibarrazgiz tirituten.

## Erredakzinoa

Gizonezkoetan Ibarrazgiz irabazi eban 2015eko Euskadiko Goma

Gaineko 8x8 Sokatira Txapelketea Aian, zezeilaren 7an. Ibarrazgiz taldean Zeberioako tiralari bat dago, Galder Gobantes. Lehena-

## AIZKOREA

Atutxa II. eta Mugertza II.  
finalerako sailkatu dira

## Irati Urien

Binakako Urrezko Aizkoran, Aitzol Atutxa eta Ugaitz Mugertza finalerako sailkatu dira Felix Etxeberria

eta Mikel Larrañagari irabazita. "Guk bion artean berrogeita hamar urte inguru daukaguz, doblea eurak, ehun. Esperientzia gatzetasunaren aurka" adierazo eban



go Arrigorriagako taldean tirituten eban Zeberioakoak baina aurten-go denporaldian Gipuzkoako taldean hasi da. Zeberion bizi arren, astean bitan joaten da hara entrenamentuetara.

Euskadiko Txapelketan, sei talde gizonezkoetan eta hiru andrazkoetan neurtu ziran. Ibarrazgiz nagusitu zan bai gizonezkoetan, bai andrazkoetan. Andrazkoetan, Badaioz taldea hirugarren postuagaz konformau behar izan zan. Ruth Linaza Lemoako tiralaria dago talde honetan.

Gizonezkoak 540 kilotan lehiatu ziran, zortzi tiralari oso-tuten eban talde bakotxa. Aurten formatoa aldatu, eta danak danen kontra tiratu beharrean, ligaxka moduan antolatu da txapelketea interesgarriagoa izan daiten. Ibarrazgiz Napurra- en kontra neurtu zan finalean eta 5 minutu eskas eta hiru minuko tiraldiak irabazi eban Euskadiko txapela.

Dimako gazteak jokatu orduko, eta atzenez gaztetasuna irabazle. Oñatin jokatu zan binakako norgehiagokea, hilaren 15ean. Irabazleak 25'26" behar izan eban euren lana amaituteko; aurkariak ostera, 27'03". Ikusi egin behar orain, ia aurtengo txapeldun suertatzen diran Atutxa II. eta Mugertza II. Poza bikotxa da dimoztarrarentzako, izan be, finalerako pasea lortutetik aparte aita izan da bigarren.

## FUTBOLA

## Futbol taldeak greban

## Ainhoa Duñabeitia

Hilak 14 eta 15eko astegoienean ez zan futbolik egon, euskal taldeak, Espainiako Gobernuak hartuko dauzan neurri fiskalak salatu teko greban dagozako. Hori dala eta partidu guztiak bertan behera geratu dira.

Aurreko astegoienean Arratia taldeko andrazkoak Zarautz taldearen kontrako neurketea irabazi eban Urbietan jokatu teko partiduan. Markagailuko atzen

emoitzea 2 eta 1ekoa izan zan.

Gizonezkoen lehenengo taldeak be etxean jokatu eban eta honek be irabazi egin eban. San Pedro taldea izan eban aurkari. Gol bi egin ebezan arratiarrak eta bat kanpoko taldeak.

Arratiako bigarren taldeak ostera aurreko astegoienean ez eban partidurik jokatu, berau bertan behera geratu zan eta.

Ikusiko da ia grebak zenbat irauten dauan eta hurrengo astegoienean futbolik dagoan.




## KORRIKA

## Andrak galapan egiteko ekimena

## Erredakzinoa

"Gu be runners gara" izeneko ekimena ipini dabe martxan Arratian, andrak galapan egiten animetako. Galapan egitea gustuko daukienak, beste andra batzuek egiteko aukerea izango dabe holan. Taldea Igorren batuko da astean bitan.

Ekimen honetan parte hartzeako ez dago adin mugarik, eta hiru azpitalde osotuko dira partaideen interesen arabera. Lehenengoa, ibiltzeko taldea; bigarrena, ibilteaz aparte zezer barria probau gura dabenentzat eta hirugarrena, galapan egiten eskarmentua daukien andrentzat.



Parte hartu gura dabenak iraiagarcia@hotmail.com helbidera idatzi behar dabe.

Arratia, Ubide eta Zeberioako euskera eta kulturearen alde

Hamabostero Begitu zure etxean

**begitu**  
anaita ubide zeberio

12 urte eta gehiago

Egin zaitetz zeu be Begitu-lagun

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateratako produktuak. Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:

■ 35€ ■ 55€ ■ 75€

Motu eta bidai helbide honetara:  
Zertu Kultur Elkarte, Herriko plaza 24, 48942 Artea

Laster  
Begitu-lagunak  
boltsa bat  
hartuko dozue  
opari!

## FUTBOLA

# Beñat Etxebarria Lagun Taldeak autobusa Eibarrera

### Erredakzioa

Beñat Etxebarria Lagun Taldekoak autobusa antolatu eta Eibarrera joango dira Athletic zaleak martiaren 1ean Eibar eta Athletic-en arteko derbia ikustera, eta Athletic-eko Beñat Etxebarria jokalaria igorretarra animetako. Autobusa goizeko 10:30ean urtengo da Areatzatik eta Igorretik 10:40ean pasauko da. Eibarren bazkaldu eta partidua ikusi ondoren, bueltako autobusa 19:30ean izango da.

Interesatuak izena Igorreko Berezi tabernan emon behar dabe hilaren 22a baino lehen. Autobusa eta bazkariaren prezioa 10 eurokoa da bazkideentzat eta

30 euro bazkide ez diranentzat. Beñat Etxebarria Lagun Taldeko bazkideak lehentasuna daukie apuntetako orduan.



## MENDIA

# Edurretan mendi ibilaldia egitera eta eskiatzera doaz AKKTkoak

### Erredakzioa

Artea Kirol, Kultur eta Euskera Taldekoak, zezeilaren 27tik martiaren 1era Ezkaraira joango dira Valdezcarayko eski-estazinora. Bertan, mendiko eskia, eski alpinoa eta mendi ibilaldia egiteko aukerea izango da.

Orain dala urte bi be antzeko egonaldia egin eben Arteako taldekoak eta aurten be, edurretako kirolak praktikau guran, Errioxako eski-estazino honetan astegoiempasa antolatu dabe. Kotxeetan joango dira bertaraino eta kotxeak beteta eroatea gomendatzen dabe antolatzaileak. Albergue de la Real Fabrican ostatu hartu gura izan ezker, izena emoteko atzen eguna hilaren 22a da. "Hortik aurrera be emon leike izena, baina ez dogu ziurta-

tzen albergean erreserbea" dinoe AKKTkoak.

Izena, Artea Kirol, Kultur eta Euskera Taldearen webgunean emon daiteke.

### Beste Mendi taldeak be eskiatzera

Mendi talde gehienak zezeileko bigarren hamabostaldi honetan eskiatzera joateko txangoak prestatu dabez. Holan, Ganguren Mendi Taldeko bediazarrak, hilaren 20an, Baqueira Beret-era joango dira domekara arte. Hurrengo barikuan, hilak 27, Ganza-bal Mendi Taldekoak Luz Ardiden-en pasauko dabe astegoiena. Gainera, domeka horretan, martiak 1, Bedia eta Zeberiotik txangoa prestatu dabe Alto Campoo-ra eguna eskiatzen emoteko.



AKKTkoak eskietan.

## MENDIA

# Eguraldia eta aklimatazioa dabilz baldintzatzen Alex Txikon lemoaztarraren Nanga Parbatera igoerea

Alex Txikon, Ali "Sadpara" eta Daniele Nardi eguraldi oneko "leihoak" aprobetxetan dabiz gorako bidea egiteko.

### Erredakzioa

Hirugarren kanpalekura (6.700m.) heltzea lortu dabe baina Behe Kanpalekura jo behar izan eben zezeilaren 13an atsedena hartzeako. Zezeilaren 15ean, eguraldiak txarrera egingo ebanaren iragarpena egoan eta astebete iraun eikiela eguraldi txar bolada horrek.

Haize zakarrak eta hotz latzak gatx egiten dabe gora egitea. Altueran egindako beharra be neketsua da eta kantsazinoak eta eguraldi eskasak kanpalekuan egon beharra ekarten dau. Erronka gogorra daukie Txikon eta bere espedizinkideak; izan be, orain arte inork ez dau lortu Nanga Parbat-eko tontorra neguan zapaltzea.



Alex Txikon.


**BILBOTIK DURANGO ETA ARRATIARAKO TRANBIA ELEKTRIKOA. 50 URTE ARRATIAKO TRANBIA BARIK**



**BARCELIA** **ANTOLATZALEA**



**LAGUNTZALEAK**



**ERAKUSKETEIA IGORREN**  
**ZEZEILAREN 13tik 27ra**  
Astelehenetik barikura 10:00etatik 20:45era  
Kultur Etxean

## KORRIKA

# Laguntzaile kanpaina, erropea, kulturala, kilometroak... badatorrela Korrika 19!



Gosariak ikuskizuneko kartela.

Gosariak ikuskizuna Igorreko Kultur Etxean izango da Korrika Kulturalaren barruan.

## Arratiako AEK

Igertzen da hilabete bat falta dala bakarrik Korrikaren edizino barria Urepelen hasteko. Izan be, hasiera egunera hurreratu ahala, gero eta gehiago dira Korrikaren bueltan aurkezten eta antolatzen diran gauzak. Korrika martiaren 19an Urepelen hasi arteko egunak bete-beterik jatorkuz. Baita, zer esanik ez, Arratian be.

Halanda, ze, gitxienez kantu-poteo bat, mendi urtekera bat eta Goserentzako kontzertu batez gozatu ahal izango dogu, hurrengo hurrengo, zezeilean gure eskualdean.

Holan, kantu-poteoa hilaren 20an izango da Igorren, iluntzeko 20:00etatik aurrera. Baina kontuz, dana ez da jaia eta! Hurrengo egunean, hilak 21, mendi urtekera egingo da, bezperako parrandarearen ostera kentzeako zein, beste barik, mendiaz goza-



tzeko. Goizeko 10:00etan Arteako plazatik eta goizeko 09:30ean Dimako plazatik, bi adarretan abiatuta, San Migel Txiki tontorrera arte eroango dogu KORRIKA. Menditik bueltan, mokadutxoak jateko aukera izango da Igorren.

Baina, duda barik, Korrika Kul-

turalaren egitarauan aparteko lekua dauka *Gosariak* lanak. Hasi be, kontzertu honez hasi zan Korrika Kulturala Bilboko Guggenheimen urtailaren 22an. Ba, Igorren be gozatu ahal izango dogu ekitaldiagaz zezeilaren 27an; 20:00etan hasita, Lasarte Aretoan.

Sarrionaindiak sortutako testuak bilakatu dabez kantu Gosek eta irudi Iñigo Arregik eta Juan Luis Goikoleak. Nortasun, elementu eta espazio ugari eta desbardinak bat egiten dabe 5 zentzumenak elikatzen dituan obran. Ikusgarria eta entzungarria, bene-benetan.

## Arratian 40 kilometro

Berrogei bat kilometro egingo ditu Korrikak Arratian, amaitu aurreko zapatu iluntzean gehienak



Honezker, erosi leike kilometroa, bakarrik edo beste inogaz, Korrikan Arratian lekukoa eroan gura dauan erakunde, alkarte edo norbanakoak.

Era berean, Korrikaren erropea erosteko edo Korrika laguntzaile egiteko aukerea be badago.

Baterako zein besterako, kilometroa erosteko, Korrika laguntzaile egiteko, erropea erosteko... Kubulu euskaltegia deitza eta joatea da onena (Agirre Lehendakaria 4. Telefonoa: 94 631 56 57), astelehenerik egunera goizeko hamaiketarik ordu batera; eta arrastiko bostetatik zazpiterara.

Korrikaren barri jakiteko sareko helbideak:

<http://www.korrika.eus>  
[www.facebook.com/aek.euskalakari](http://www.facebook.com/aek.euskalakari)  
[twitter.com/EuskalakariAEK](https://twitter.com/EuskalakariAEK)  
eta Arratian:  
[www.facebook.com/korrikaarratian.euskalakari](http://www.facebook.com/korrikaarratian.euskalakari).

## DOKUMENTALA

# Gazteen errealitatea erakusten dauan dokumentala Lemoako Karabie Gaztetxean

## Erredakzioa

Zezeilaren 20an, barikua, arrastiko 19:15ean Lemoako Udaleko Euskara Zerbitzuak Karabie Gaztetxeagaz lankidetzan *Kalesareak* proiektuaz emongo dau. *Kalesareak* Bizkaiko gazteen egunerokotasuneko errealitatea eta bizimoduak erakusten dauan *road movie* dokumentala da.

Dokumentalean, gazteak zelangoak diran plazaratzeko asmoagaz

kalera abiatzen dira. Sare bidez alkartu, komunitatea sortu eta errealitatea, desio, proposamen, ikuspuntu, erreflexino... ugariak partekatu eta transmitiduteko ekimenak garatzen ditue. Ondoren solasaldia egongo da eta hurreratzeko diran gazteak zelan ikusten daben euren errealitatea eta zer aldatuko leukien azaltzeko aukerea izango dabe.

Dokumentala K Proiektuaren sintesia da.



## OTSAILAK 20

Lemoako Gaztetxean, 19:15ean

## Kalesareak

-NOLA IKUSTEN DUZU ZURE INGURUKO ERREALITATEA?

-ZERBAIT ALDATUKO ZENUKE?

-ETOR HADI KALESAREAKEN PROIEKZIOA ETA PARTE HARTU ONDORENGO KOLOKIO IREKIAN. MEREZIKO DU ETA!

Dokumentalaren ostean kolokioa egongo da.

## MAGIA

# Sun Magoa Lasarte Aretoan



## Erredakzioa

Sun Magoak *Xistera magikoa* magia ikuskizuna eskeiniko dau zezeilaren 28an arrastiko 17:30ean, Igorreko Kultur Etxean. Ikuskizun honetan, mago klasikoen modura jantzita, Sun Magoak ilusionismoan zeharre-

ko ibilbide magikoa egingo dau: magia komikoa, manipulazioa, magia orokorra eta abar. Funtzioa hiru urtetik gorakoentzat da. Umeak modu aktiboan hartzean dabe parte eta batzuk magoak izango dira une batez. Sun Magoak 2011ko Magia Sari Nazionala irabazi eban.

## ARATUSTEAK

# Kolorez bete ziran Arratiako kaleak



Igorreko lehiaketako nagusien kategoriako talde irabazlea.



Zeanuriko talde bat mozorrotuta.

### Erredakzioa

Martitzenera arte, hilak 17, Inauteriak ospatuten jarraituko dabe arratiarrak, Bedian eta Areatzan batez be. Dana dala, orain artekoan, eguen loditik hasi eta domekara arte, sano ondo pasau dabe arratiarrak eta euriagaitik ez da jentea etxean geratu. Asko eta asko mozorroak jantzita ibili dira kantuan, jantzan edo antolatutako

ekintzetan parte hartzean.

Giro horren testigantzea irakurleak bialdutako argazkiak doguz. Hona, Igorreko Mozorro Lehiaketan nagusien kategorian irabazle izan zan taldearen argazkia eta Zeanuriko beste talde batena dakarguz. Beste irakurleakaz argazkiok konpartidu gura ezker, [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera bialdu eta gure webgunean aterako doguz.

## AKKB

# AKKB, 2014ko balantze ona

### Irati Urien

Areatzako Kultur Kirol Batzordea topera dabil. Urtailaren 30ean egin eben memoriaren aurkezpena eta zapore benetan gozoagaz gelditu ziran taldekoak 2014 urteari errepa-soa emon ostean. 250 bazkide eta 36 babesle dira igazko datuak, eta honeek danak diru sarrera garrantzitsuenak izatea suposatu dabe. Hirurogei ekintzatik gora antolatu ditu AKKB-k, asteko bat baino gehiago, eta ekintzotan, euskarearen erabilera % 80 baino gehiagokoa izan da. Batzordekoen esanetan, gero eta gehiago dira euren konfiantza ipinten dabenak, Areatzan kirol eta kultur ekintzak antolatu teko erreferente txiki bat bihurtu dirala dinoe. Pozik dagoz antolatuten dabezan ekintzak jarraipena izatea zalako euren helburuetako bat eta bete egin dabelako. Noiz-behinkako ekintzak baino, jentek kultur eta kirol ekintzak "konsumiduteko" ohitua hartutea be gure dabe eta lortuten dabil. Idoia Ruiz AKKB-ko kideak adierazo dauanez, "Kontutan hartu, urtebetean 60 ekintzatik gora antolatu doguzala eta hori 1000 biztanle inguruko herri baten; ez da ez erreza, ez ohikoa. Nahiz eta guk normalizat hartu, jentek bere herrian kirol eta kultur ekintzak egiteko oportazino edo ekarpen ekonomikoak egitea be ez da ohikoa eta guri, AKKB-tik eskertutea baino ez jaku geratzen, gure babesle eta bazkideen esfortzu, konpromiso eta interesa".

**Lau zita, Bazkide Eguna tartean**  
Zezeilaren 21erako Korrika Kul-

turalaren barruan San Migel Txikira mendi urtekerea egingo da. 10:00etan Arteako plazan da zitea. Hurrengo egunean beste urtekera bat Gainzorrotz eta Urtemondora Artaunetik, honetarako eleiz aurrean 08:00etan egon behar da. 28an AKKB bazkide eguna ospatuko dabe, egun handia eurentzat. Batzordekoen esanetan, "bazkide eta babesle guztiak konbidatutea gustauko jakun, oso egun ederra izango da eta gainera AKKB lagun sariak bananduko doguz". 13:00etan poteoan hasi eta 15:00etan bazkaria egongo da hotelean: babak, sakramentuak eta arroznea. Bazkal ostean jantzaldia hotelean bertan. 19:30ean nesken pala partidua eta andrazko eta gizonezkoen

frontenis finalak. Laminetxe Gaztetxeagaz batera kontzertuak antolatu dabez gaztetxean 23:00etan The JA & The Melody Breaker eta The Pushermen (bokatak egongo dira). Bazkarirako izena emoteko zezeilaren 19 eta 24an udaletxeko 3. solairuan, 19:00etatik 20:00etara egongo da aukerea. Euskalduna Jaurigira urtekerea egingo da martiaren 1ean, Bilboko Banda eta Serafin Zubiri "Nino Bravo oroitzu" kontzertua ikusteko. Martiaren 7an Valdezcarayra eski urtekerea eta San Lorenzo mendi urtekerea egingo dira.

Ondino data barik baina maki-na bat ekintza dira aurreragoan AKKB-k eskeiniko dituanak: Anjel Larrearen "Arratiako ondarea ezagutu" trilojiaren 2. eta 3. atalak, UPO-RAID, II. Folk Jardunaldiak, III. Erdu eta Musikatu, Esku Pelota Txapelketa, II. Mendi Astea, III. Herri Kirol Desafioa, Euskaldunara BOS ikustera eta abar.

**AKKB BAZKIDE EGUNE**  
zezeilak 28, zapatue

- 13:30ean Poteoa -  
- 15:00etan Bazkaria -  
Bazkariaren izen emotea  
Zezeilak 19 eta 24 - 19:00etatik 20:00etara  
Udaletxeko 3. pisuko gelan  
-Bazkideak 12€ -Ez bazkideak 15€  
- Bazkal ostean Dantzaldie -  
- 19:30ean Umeen pala partiduek -  
- 20:00etatik aurrera Frontenis finalak -  
- 23:00etan Kontzertuek -  
LAMINETXE gaztetxean  
J.A. & the Melody Breaker + THE PUSHERMEN

## DUNBA

# Aste Zuriagaz batera Inauteriak heldu dira Arratiara

Aste zuria, zezeileko atzenengo asteagaz eta, noizean behin, martiako lehenengo asteagaz bat dator, beti be Andaluziako egunagaz bat eginaz, hau da, zezeilaren 28agaz.

### Arratia Institutuko DBHoko ikasleak

Aste Zuria leku eta era desbardinetan ospatuten dogu, jatorria Malagan izan arren (harrigarria badirudi be, holantxe da!).

Urtero lez, aurten be gogo handiz hartzean dogun Aste Zuria heldu jaku Arratia eta ingurueta.

Ohiturak dinoan moduan, zapatu egunez Arratiako gazteak eta ez hain gazteak batu eta mozorrotu egiten gara; aurreko aste edo hilabeteetan pentsauta izan dogun mozorroa jantzi eta hor goaz, bideak betetan!

Apurka-apurka, gure aitita-amamen ohiturak galduz doaz: tostadak familien artean egin eta jatea, herri koplak kantetea, txari

bodak... Baina, zorionez, ondino ez doguz guztiz galdu. Arratian Inauteri berbea erabilten dogun arren, berba honek hainbat sinonimo eta aldaera daukaz, lekuaren arabera: Aratusteak, lhauteak, lhoteak eta abar.

Gaur egungo mozorroak sasoi batekoak baino askoz modernoagoak dira, sarritan beren-beregi dendara joaten gara egun horretarako mozorro bila. Lehenago etxeko erroza zaharrak jantzita edo norberak zelan edo halan josita egiten ei ziran.

Euskal Herriko Inauteri esanguratsuenak Mundakako atorrek, Arizkungo hartza,

Lantzeko Miel Otxin, Ituren eta Zubietako zantantzarrak dira. Gure ustez, ondo egongo leiteke gure arbasoen ohitureta bueltetea eta ohitura horreek indartutea.

Gure haranean, Igorre da Inauterietan mobimentu eta ekintza gehien daukan herria. Inauterietako zapatuan, gazteok goizetik hasten gara jaia ospatuten, kuadrilakoak batu eta poteoan urtetan dogu. Gero herri bazkarira joaten gara, bertan Jokaldi taldeak girotzen deusku otordua eta eguna ondo amaitzeko, gauean, jaiak herriko tabernetatik dirau.

Inauterietan, aitaturakoaz aparte, Aste Zuria beste ekintza batzuk egiteko be aprobetxetan dogu, esate baterako, jente askok neguko kirol nagusia, eskia, praktiketan dau.



## AGENDEA

ZEZEILAK 17  
AREATZA

16:30ean, Areatzako Euskera Batzordeak antolatuta, mozorro duatloia plazan. Ondoren karaokea.

## BEDIA

Aratustejaia. 17:00etan, Photocall-a DJ batez girotua; mozorroen desfilea eta brokolatea ludotekan.

Hilaren 20ra arte, Udalak eraturako ikastaroetan izen emotea. Liburutegian.

## IGORRE

Erakusketea, *Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia elektrikoa. 50 urte Arratiako Tranbia barik*. Kultur Etxean. Hilaren 27ra arte.

## LEMOA

11:00etatik 14:00etara ludotekea zabalik.

ZEZEILAK 18  
BEDIA

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra udaletxean.

## LEMOA

11:00etatik 14:00etara ludotekea zabalik.

ZEZEILAK 19  
IGORRE

20:00etan, Zine Kluba *Carmina y amen* (Paco Leon, 2014).

## LEMOA

19:00etan, Mobikortasun Planaren aurkezpena. Jubiladuen Etxean.

ZEZEILAK 20  
BEDIA

18:00etan urtenda domekara arte, eski urtekerea Baqueira Beretera. Gangurenek antolatuta Udalaren laguntzeagaz.

## DIMA

19:30ean, Korrika herian antolatzeko batzarra.

## IGORRE

20:00etan, Korrikaren aldeko Kantu-poteoa.

## LEMOA

19:15ean, *Kalesareak* dokumentalaren proiektzioa Karabie Gaztebtxean.

ZEZEILAK 21  
ARRATIA

Korrikaren aldeko mendi ibilaldia, San Migel Txiki

tontorrera, zutabe bitan. Urtekerea 09:30ean Diman, 10:00etan Artean. Amaieran mokautxo Igorren.

## AREATZA

Parketxeak antolatuta, mendi urtekerea Saldropo-Atxuri-Arralde.

22:00etan Diskbreakers-en kontzertua The Quiet Corner-en.

## IGORRE

22:00etan zinea *Birdman* Lasarte Aretoan.

ZEZEILAK 22  
AREATZA

Gainzorrotz eta Urtemondora urtekerea. 08:00etan eleiz aurrean. AKKBk antolatuta.



## Zinegoak Igorren hilaren 20an

Hegoak, gay, lesbiana, transexualen eta bisexualen alkarteak antolatuten dauan Zinegoak nazinoarteko zine eta arte eszenikoen jaialdiak 12 urte bete ditu aurten. Harrezkerotik asko hazi da. Aurten, mundu zabaleko 28 herrialdetatik ekarritako pelikulak ikusteko aukerea egon da Bilbon.

Baina filmok Bilbon bakarrik ez, Hedapenak Saila dalakoan, eta ikusle gehiengana hurreratzeko helburuagaz, Bizkaiko 10 herritan eta Gipuzkoako beste lautuan be ikusi daitezke. Igorre da herri horreetako bat. Hemen, zortzi film labur ikusteko aukerea egongo da, hilaren 20an, zortziretan. Honeek dira filmok: *Pepper* (Gay tematikoa), *Prinsesa* (ume eta gazteentzako), *What's your sign?* (L, tematika lesbikoa), *Tomorrow* (Ume eta gazteentzako), *1 mes y 2 días* (L), *Pelucas* (L), *Trunk* (G) eta *Lucky Fares* (G).

## IGORRE

17:00etan umeentzako zinea *Las aventuras del pequeño fantasma*. 19:30ean *Birdman*.

## LEMOA

10:30ean, gudariak egindako ibilbidea (urtekerea Atxeta plazan) eta antzerki formako lubakia San Antolinen, Frentes de Euzkadi alkartearen eskutik.

## ZEANURI

Ibilbide mitologikoa. 09:00etan Zulaibaren urtekerea. Axpeko palazioa, gaztaina hezia, karobia, Hatzelorrako ur jauzia... Osteen bazkaria jubiladuenean. Izena hilaren 19ra orduko emon.

## ZEBERIO

Austari Mendi Taldeak antolatuta mendi urtekerea Ganeko-Gallarraga.

19:00etan, zinea *Paul* (zuz.: Greg Mottola). Udaletxeko 2. solairuan.

ZEZEILAK 23  
IGORRE

16:45ean, andren arteko topaketa interkulturalak, Kultur Etxean.

## LEMOA

19:00etan, Josu Txueka eta Juan Ramon Garairen berbaldia "Octubre de 1934 en Euskal Herria"; 20:00etan, Aritz Ipiñaren berbaldia "Lemoa ya es España, la represión franquista entre el personal municipal de Lemoa" Pleno Aretoan.

ZEZEILAK 24  
LEMOA

19:00etan Pako Etxeberriaren berbaldia "Exhumando fosas, recuperando dignidades" Pleno Aretoan.

## ZEBERIO

17:00etan, HAPO erakusketea. Bisita gidatua.

ZEZEILAK 26  
BEDIA

19:00etan, Arratiako Gurutze Gorriaren berbaldia "Lehen sorospenak: ziurtasun eta lasaitasun osoz jokatu etxeko arrisku eta istripuen aurrean".

## LEMOA

18:00etan, Lemoako Haur eta Gazteen XIV. Ipuin Lehiaketaren sari banaketeta. Ines Bengoa ipuin kontalaria ludotekan *Karabi Karaba* saioagaz.

19:00etan, dokumentalak Pleno Aretoan.

ZEZEILAK 27  
ARTEA

AKKT-k antolatuta, Ezkaraira edurretara domekara

arte. Mendiko eskia, eski alpinoa eta mendi ibilaldia.

## IGORRE

19:00etan, Xabier Aierdik etorkinakanako jarkeen gaineko berbaldia Kultur Etxean.

20:00etan, *Gosariak* (Gose) Korrika Kulturalaren barruan. Lasarte Aretoan.

## LEMOA

19:00etan Asuncion Badiolaren berbaldia "Campos de concentración y cárceles en Bizkaia" eta 20:00etan, Joseba Egigurenen berbaldia "Prisioneros de Franco en Orduña" Pleno Aretoan.

Martiaren 1a arte, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta eski urtekerea Luz Ardidenera.

## IGORRE/LEMOA/ZEBERIO

19:30ean, atzen banakua, preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

ZEZEILAK 28  
AREATZA

AKKB Bazkide Eguna. 13:30ean poteoa; 15:00etan bazkaria; bazkalostean jantzialdia; 19:30ean umeen pala partidua; 20:00etan, frontenis finalak; 23:00etan kontzertuak Laminebe Gaztebtxean J.A. and the Melody Breaker eta The Pushermen.

Futbolin Txapelketeta Bixer tabernan.

21:00etan, Swingpapers-en kontzertua The Quiet Corner-en.

## IGORRE

10:00etan, autodefensa feminista ikastaroa Kultur Etxean.

17:30ean, Sun Magoaren ikuskizuna *Xistera magikoa*. Kultur Etxean.

22:00etan zinea *Invencible* Lasarte Aretoan.

MARTIAK 1  
AREATZA

Euskalduna Jauregira urtekerea Bilboko Banda eta Serafin Zubiri "Nino Bravo oroituz" kontzertua ikusteko. AKKBk antolatuta.

## BEDIA

Alto Campoora eski urtekerea. Egun osoko urtekerea umeentzako.

## IGORRE

17:00etan umeentzako zinea *Stand by me Doraemon* (euskeraz). 19:30ean *Invencible* Lasarte Aretoan.

## ZEBERIO

Austari Mendi Taldeak antolatuta, urtekerea Alto Campoora, eskiatzera.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

MASAJEAK EMOTOKO OHATILA  
SALGAI

Masajeak emotoko ohatila saltzean dot, barri-barria, bitan bakarrik erabilitakoa. Tolesgarria, besapean eroatekoa. Prezioa 100 euro. 619 661 841.

## UMEENTZAT AULKIA SALGAI

Bugaboo markako umeen sillea eta pianola funda bi saltzean dodaz. Interesautu zagozenak 679 909 869 telefonora deitu.

DANERIK  
IKASTAROA

Buztinagaz gozatu gura badozu, ointxe dozu aukerea. Helduentzako keramika ikastaroa Igorren, eguazteneko ordu bi, 18:00etatik 20:00etara. Animauta bazagoz, deitu 615 731 182 telefonora.

## BASERRIRAKO LAGUN BILA

Igorren, Urkuzuko baserri baten bizi gara eta lagun bila gabiz. 200 euro. Giro atsegina, ortua, oiloak, frutarbolak, internet-a eta aukera gehiago.

Interesatuak deitu: Izaskun 605 728 358 edo Txapu 669 311 309 edo idatzi izaskun\_urbaneta@hotmail.com-era.

## TXISTUA GALDU DOT

Abenduaren 21ean, Lemoako eleiza inguruan txistua galdu neban. Baten batek topau ezkeru deitu 677 497 985 telefonora mesedez.

## BEHAR BILA

Etxeko beharrak eta garbiketak egiten dodaz. Kotxeduna. 658 591 307.

## INGELES ESKOLAK

Ingeles irakasleak eskola partikularrak emoten ditu. Cambridgeko "Certificate of Proficiency in English" titulua daukat eta Erresuma Batuan bizi izan naz 4 urtez. Irune 615 708 238.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com-era](mailto:begitu@topagunea.com-era). Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Korrika Kultureleko *Gosariak* ikuskizunerako.

Janire Lopez (Igorre)  
Arratia Motor Taldea (Igorre)



**2** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Sun Magoaren *Xistera magikoa* ikuskizunerako.

Itziar Etxezarraga (Areatza)  
Aritz Arrizabalaga (Igorre)




Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 12 urte eta ehundaka lagun.

## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA


1.- Azken letrea. Lodi. 2.- Galdera aurretik. Amaren gizona, agozko eran. 3.- Birritan, Afrikako tanbor antzekoa izentetako onomatopeia. Tik..., erlojuaren hotsa. 4.- Maindire. Bokala. 5.- Bokala. Oihala. 6.- Azkar. 7.- Errusiako ibaia. Upel handia. 8.- Ahul. Emea ez dana. 9.- Armiarma. Bokala.

### GOITIK BEHERA

1.- Partea. Kortezubiko udalerriko herrigunea. 2.- Haga, habe. Gizonezkoen izena. 3.- Letra bat. Ika-mika. 4.- Gitxi falta. Greziako mitologian, Urano eta Gearen alaba. Sanskritiko silaba sagradua. 5.- Tematu. Uranioa. 6.- Juntagailua. Eup! 7.- Kantsazino. Otzara.



Topau arpegiko zazpi atalen izenak.



# AKI MI KO

Aitziber



**Igorren ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

**AKESOLO, S.A.**  
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK  
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-SIZKAL

**Orrie**  
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA  
L. Agirre, 2.  
48140 Igorre (Bizkaia) Telefonoa: 94 673 64 25

**NAIARA** Hertz Klinika  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
94 631 52 26

**AGRESOREAK**  
basola Emaldi  
Abokatuak  
620. 57.86.04  
asierabasola@hotmail.com  
Bilbao-Zeanuri

**Recreativos Gubi S.L.**  
Angel Larrea  
Zornotza Telefonoa 649 86 95 36

**Los Chopos**  
neurri egindako armairuak  
Arda, Los Chopos, 33 (Nagar) Tel.: 94 430 40 94  
**Esposizinoa eta fabrika Lemoan**  
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44  
www.armariosloschopos.com

**GARANTXE Autoeskola**  
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ  
Balainak: A1, A, B77, B  
Lehendakari Agirre 31  
Telefonoa: 94 673 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@vodafone.net

**AKEITEGIA**  
**GAY & LORA**  
IGORRE

AHOLKULARITZA:  
LEGE-LAN ARLOAN  
**ZUZENBIDE**  
ZERGA ETA DERU KONTUTAN  
ONDASUN HIGEEZINEN  
ASIGURUTAN  
Bilbao Arana, 3. Floor. 94 673 71 41 - Fax: 94 673 94 41 - 48140 IGORRE

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

**Jose Luis Corbacho**  
pintura lanak  
Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

**KIRRU ILEAPANDEGIA SOLARIUM**  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 631 92 06

**Pinturas Aratia**  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karneta euskaraz zein erdaraz  
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 80  
e-posta: vnozalu@euskatel.net

## ARANTZA ALDEKOA ETA IDOIA LEGARRETA

**Ikusleak eta zaleak osotuten dabe Igorreko Zine Klubeko taldea**

Igorreko Zine Klubak karteldegian ez dagozan pelikulak ikusteko aukerea emoten dau: zine klasikoa, alternatiboa, komertziala... Pentsau arazo, barrea eragin, edo munduaren beste ikuskera bat eskeintzen daben pelikulak ikusi daitezke, hiru hilerik behin, hiru pelikulez osotutako zikloetan. Aukera hau posible egiten dauan taldeko partaide bigaz egon da BEGITU: Arantza Aldekoa eta Idoia Legarretagaz.

**Erredakzioa****Noz sortu zan Igorreko Zine Kluba?**

**I.L.:** Orain dala zazpi-zortzi urte sortu zala uste dot. Aritz Arri-zabalaga, Urtzi Barrenetxea eta Ibai Pujanak sortu eben. Gu zine klubera joaten ginan pelikulak ikusten eta atzenean, sartu egin gara honetan Igorren zine kluba egotea gura dogulako.

**A.A.:** Bai, aurrera egin ahala, jentea aldatuten joan da. Batzuk joan diran heinean, barri batzuk sartu gara.

**Zuek noz sartu zinien?**

**A.A.:** Ni igaz sartu nintzan, denpora gitxi daroat. Horixe izan da prozesua: hasieran ikusle moduan joaten nintzan eta ikusita beharra egoala, edo gogoak emonda-edo, sartu nintzan.

**I.L.:** Ni orain dala hiru edo lau urte.

**Igorreko Zine Kluba nortzuk osotuten dabe?**

**I.L.:** Taldea ikusleak osotuten dabe. Zabala da.

**A.A.:** Ez dago talde finko bat. Ziklo bat prestatzeko hiru edo lau persona egon leitezke interes berezia daukielako ziklo horretan, edo momentu horretan denpora gehiago daukielako. Eta igual hurrengo ziklorako beste batzuk

egongo dira.

**Zeintzuk dira zikloak prestatzeko erispideak. Orain umorezko pelikulak osotu dabe zikloa, zelan ebatzi zan hori?**

**I.L.:** Hiru erispide daukaguz, pelikulak aukeratzeko lagunduteko. Erispide horreetako bat autore bat izan leiteke: zine zuzendaria edo aktorea. Beste erispide bat gaia da; gai bat hartu eta horren inguruko pelikulak bilatzen doguz. Eta hirugarren erispidea lurraldea da. Hiru erispide honeek zineak emoten deuskuzan aukerak esploratuko balio deuskue.

**Lurraldeari jagokonean, modu zabalean hartzean dozu, ezta? Orain dala gitxi, zine afrikarra izan zan, eta Afrika kontinente oso bat da.**

**A.A.:** Bai, atzenean erispide horreek Idoiak esan dauan moduan guri zikloak antolatuten lagunduteko baino ez dira: ez errepituteko edo zabalagoak izateko... Ez daukie garrantzia handirik.

**I.L.:** Afrikakoa ipini genduan, gu oso konsziente ginan Afrika oso anitza dala eta uste dot mugatu genduala herrialde batera, atzenean. Senegal izan zan?

**A.A.:** Ez dakit. Baina bai ikusi genduan Afrika oso zabala zala eta zine industria desbardinak dagozala. Adibidez, Afrikako ipa-

rraldean Tunezen edo Egipton badagoala industria zinematografikoa ezagunagoa eta atzenean esan genduan, bueno ba, igual benetan interesetan jakuna da beste zine mota bat erakustea, eta Sahara azpiko herrialdeetara jo genduan.

**Zelan jakiten dozue pelikulen barri?**

**I.L.:** Pelikula batzuk proposatuten diranean, persona bateri gustau jakozalako izaten da; pelikulea ikusi daualako edo entzun daualako edo gaia hur toketan jakalako. Askotan, ikusleren batek proposatuten dau pelikularen bat eta hortik definituten dogu zikloa. Interneten topatzen doguz pelikulok eta Kultura Teknikariari komentau eta berak egiten dau gestinoa: autore eskubideak lortu eta abar.

Diru asko da eta apustu bat da zine ez komertziala bultzatzeko.

**A.A.:** Izan daiteke zine ez hain komertziala bultzatzeko modu bat, baina atzen baten danerik egoten da. Pelikula ez hain komertzialak topetako jotzen dogu zinemaldietara, sariak daukiezan pelikuletara be bai batzuetan...

**I.L.:** Eta askotan zine klasikoa aukeratuten dogu.

**Inoz gertatu jatzue, pelikula bat aukeratzea pentsatuz gauza bat zala eta ipintzerakoan ikusi ez zala inondik inora espero zenduen ha?**

**I.L.:** Askotan. Hain subjektiboa da, gustu kontua! Eta gainera hain jente dibersoa gara ze, askotan ez dakizula nori gustauko jakon. Baina nire ustez duda horretan be badago xarma. Taldea zabala da eta hori askotan gertatzen jaku. Zine alternatibora joteko joerea be badago, eta askotan aspergariak izaten dira. Eta egon badago baita be zine komertzial ona.

**A.A.:** Bai, nik pentsetan dot ona dala sorpresak egotea; batzuetan onerako eta beste batzuetan txarrerako. Baina ikasi be, asko ikasten da. Igual beste jente batek erakutsi ahal deusuz pelikula batzuk, zuri printzipioz ez jatzuzan gustauko. Aukera bat da eta beti ikasten da zeozer.

**I.L.:** Bai guretzat aberasgarriena



horixe da, pila ikasten dogula alkarrengandik. Gu ez gara adituak, zinea gustetan jaku eta denpora apurtxo bat eskeintzen deusagu talde honeri.

**Bete egiten da aretoa?**

**I.L.:** Ez, jente gitxi joaten da 20 persona inguru.

**Eta hori zergaitik izan daiteke? Akaso, jentek ez daukako ohiturarik astebarruan zinera joateko?**

**I.L.:** Astegoienetan jente pila joaten da zinera Igorren. Astebarruan igual denpora falteagaitik ez da joango, baina uste dot ohitura kontua dala. Igorren hasieran, zinea ipini zanean jenteari asko kostau jakon aretoa betetea. Holango herri txikerretan zinera joateko ohitua falta da.

**A.A.:** Ez dakit errazoiak zeintzuk diran. Guk uste dogu aukera erakargarria dala: eguen baten zortziretan eta prezio oso onean pelikula bat ikustea. Gainera jatorrizko hizkuntzan.

**Atzenengo zikloan umorezko pelikulak ikusi ahal izan dira Igorren. Gaiak eragina euki dau eta jente gehiago hurre-ratu da? Barre egitea beti da erakargarria eta.**

**A.A.:** Jente barria etorri da, baina ez da izan ziklo honegaitik. Aurreko zikloetan beste mobimentu

bat somatzen hasi gara, arpegi barriak agertu dira eta hori oso ona da.

**Zeren gainekoak izango dira hurrengo zikloak?**

**I.L.:** Hurrengo zikloa, printzipioz, herrialde bateri eskeinitakoa izango da, baina oraindik ez dogu herrialdea aukeratu.

**Zeintzuk dira zuen erronkak?**

**I.L.:** Aretoa betetea oso erronka polita izango litzateke. Gure erronka: jentearengana heltzea eta zabalak izatea eta jentek euren eskakizunak heldu arazotea guri. Gero eta jente gehiago erakartea, noski. Holango herri txiki baten zine desbardinak ikusteko aukerea izatea oso ondo dago.

**A.A.:** Eta sortzean dan giroa nahiko hurbilekoa da. Ikusle moduan joan arren, edozein momentutan proposatu ahal da pelikularen bat edo ekarpenak egin leitezke.

**Zineforumik egiten dozue?**

**I.L.:** Pelikulea aurkezten dogu eta inoz saiatzen gara baten bat ekarten berbaldi bat emoteko. Igazko zezeilean identitatearen inguruko ziklo bat egin genduan eta horren gainean berba egiten jentea ekarri genduan. Bai, txitean-pitean baten bat ekarten saiatuten gara.

**begitu**  
arratia ubide zeberio  
**www.begitu.org**

publizitatea  
94 631 73 14 eta 649 979 115